

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

72. zenbakia

Data 1999-04-21

6145 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

DONOSTIAKO UDALA

Ohore eta Aipamenen erregelamendua aldatzea

Idazkari Nagusia

Behin betiko Ohoroe eta Goraipamenen Erregelamendu aldaketa.

Donostiako Udalbatzarrak, 1998ko azaroaren 23an eginiko ohiko bilkuran, 1986ko irailaren 5eko Ohore eta Sariei buruzko Araudian aldaketa batzuk egitea onartu zuen, hasiera batean. Jendeari horren berri emateko epea amaitu eta alegaziorik aurkeztu ez denez, proposatutako aldaketak behin betiko onartutakotzat jo eta argitaratzen dira:

1986ko irailaren 5eko Ohore eta Sariei buruzko Araudiko 18 eta 30. artikulak honela gelditzen dira:

«18. art. Gorbataren 18 ale baino ez dira banatuko eta ez da ale berririk eragingo edo emango baten bat hutsik geratu arte, urtean gehienez bi ale baino ez direlarik sari emango».

«30. art. Herritar Merezimenduaren dominen kopuruak ez du mugarik izango, baina udalak ardura berezitat hartuko du horrelakoen ospea gal ez dadin, berariaz ahaleginduko delarik 200 pertsona fisiko edo juridiko baino gehiago batera sariaren jabe ez izaten. Urtean ez da 5 domina baino gehiago banatuko».

Honako edukia duen 7. atal bat gaineratu da:

«7. kapitulua. Urrezko danborra.

32. art. Urrezko danborra urrezko ezaugarria izango da, paparrean eramateko modukoa. Aurrealdean danborra eta bi zotzak agertuko dira, hauek soketan bermaturik. Atzealdean KTE, Donostia, ezaugarriaren hurrenkera zenbakia, eguna eta sarituriko lagunaren inizialak. Ezaugarria bera ez ezik, sariturikoari danbor bat ere emango zaio, non Donostiako armarría agertuko baita eta horren eskuinaldean ezaugarriaren irudia eta honako lelo hau «Donostiako Kultura eta Turismo Ekintzetxeak Urrezko Danborra deritzon saria eman dioari beregan bildu dituen merezimenduak direla eta».

33. art. Urrezko Danborrak saria emanda gure hiriaren turismo balioak areagotzen edo sustatzen nabarmen lan egin duten pertsona fisiko edo juridikoak saritu nahi dira, Donostian bizi ez arren, beste herrialde, hiri, erakunde eta lagunetik ezagupen eta adiskidetasun loturak sendotzen baitituzte. Hil ondoko saritzat ere eman daiteke egoerak hala aholkatuz gero.

34. art. Urtean Urrezko Danbor bakarria izendatuko da, saria eman gabe ere utz daitekeela. Ezaugarriak eta egiaztagiria alkateak banatuko ditu jendaurreko omenaldi ekintza publikoan, hiriko Zaindariaren jaiegunean.

35. art. Izangaia aukeratzeko Kultura eta Turismo Ekintzetxeko Zuzendaritza Batzordeak izangaien merezimenduen arabera hurrenkeran gauzaturiko proposamena prestatuko du, horrela behin betiko sariduna aukeratu ahal izateko irizpideak izan ahal izateko. Hautagai bat baino gehiago izanez gero, isilpeko bozketa egingo da, saria boto gehien eskuraturiko lagunari izendatuko zaiola. Kultura eta

Turismo Ekintzetxearen proposamena Donostiako Udalbatzarrak berretsi behako du osoko bilkuran udalkiddeen legezko gehiengo absolutua dagoela.

36. Art. Kultura eta Turismo Ekintzetxeak «Urrezko Liburuan» erroldatuko ditu urtez urte saria eskuraturiko lagunen izen-deiturak, sariturikoek aukera izango dutela mezuren bat idazteko».

Donostia, 1999ko apirilaren 6a.—Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Idazkari Nagusia. (3966)